

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2022/2023 ikasturtea

**JAZARPEN SOZIALAREN ETA AHOZKO JAZARPENAREN
PREBENTZIOA ANTZERKI FOROA ERABILIZ: ESKU-HARTZE BATEN
PROPOSAMENA ETA INPLEMENTAZIOA**

Egilea: Irati Aurtenetxe Garcia

Zuzendaria: Joana Jaureguizar Alboniga-Mayor

Leioan, 2023ko ekainaren 6an

JAZARPEN SOZIALAREN ETA AHOZKO JAZARPENAREN PREBENTZIOA ANTZERKI FOROA ERABILIZ: ESKU-HARTZE BATEN PROPOSAMENA ETA INPLEMENTAZIOA

Irati Aurtenetxe Garcia

UPV/EHU

Eskolan, elkarren arteko jazarpena gaur egun ematen den errealitate bat da. Gradu Amaierako Lan honen helburua eskola jazarpenaren prebentziorako esku-hartze bat diseinatzea eta martxan jartzea zen, KIVa programan eta Berdinen Arteko Tutoretza planean oinarrituz eta Antzerki Foro metodologia erabiliz. Euskal Autonomia Erkidegoko eskola itunpeko batean, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako 75 ikasleekin (3 ikastaldeekin) esku-hartze osoa praktikan jarri zen. Horretarako, bost saio behar izan ziren. Esku-hartzearen helburu orokorrak bete ziren, hots, jazarpenaz kontzientzia hartzea eta horren prebentzioa sustatzea. Gainera, emaitzetan ikusi zen bezala, esku-hartzeak eragin positibo bat izan zuen ikasleengan eta aldaketa bat bizi zen ikasleen harremanetan, errespetuan eta lankidetzan hobekuntzak nabaritu zirelako. Ondorioz, esan daiteke antzerki foro metodologia eskola jazarpena prebenitzeko metodologia baliagarria eta egokia izan daitekeela.

Hitz gakoak: eskola jazarpena, Antzerki Foroa, KIVa programa, prebentzioa, Lehen Hezkuntza

El acoso escolar es una realidad que se da con frecuencia hoy en día en el ámbito escolar. El objetivo de este Trabajo Fin de Grado era diseñar y poner en marcha una intervención para la prevención del acoso escolar, a partir del programa KIVa y del plan de Tutoría entre iguales, utilizando la metodología Teatro Foro. En un colegio concertado de la Comunidad Autónoma del País Vasco se puso en práctica la intervención completa con 75 alumnos y alumnas (3 grupos) de sexto de Educación Primaria. Para ello fueron necesarias cinco sesiones. Se cumplieron los objetivos generales de la intervención de concienciación y prevención del acoso. Además, como se vio en los resultados, la intervención tuvo un impacto positivo en el alumnado y se dieron mejoras en las relaciones, el respeto y la colaboración del alumnado. En consecuencia, se puede afirmar que la metodología Teatro Foro puede ser una metodología útil y adecuada para prevenir el acoso escolar.

Palabras clave: acoso escolar, Teatro Foro, programa KIVa, prevención, Educación Primaria

Bullying is a reality that occurs frequently today in the school environment. The goal of this Final Degree Project was to design and implement an intervention for the prevention of bullying, based on the KIVa program and the Peer Tutoring plan, using the Theater of the Oppressed methodology. In a subsidized school in the Autonomous Community of the Basque Country, the complete intervention was put into practice with 75 students (3 groups) in the sixth year of Primary Education. For this, five sessions were necessary. The general goals of the bullying awareness and prevention intervention were met. In addition, as seen in the results, the intervention had a positive impact on the students and improvements were noted in the relationships, respect and collaboration of the students. Consequently, it can be affirmed that the Theater of the Oppressed methodology can be a useful and adequate methodology to prevent bullying.

Key words: bullying, Theater of the Oppressed, KIVa program, prevention, Primary Education

Aurkibidea

1. Sarrera..... 4

2. Marko teorikoa..... 5

 2.1. Eskola jazarpena 5

 2.1.1. Eskola jazarpenaren definizioa 5

 2.1.2. Eskola jazarpenaren motak 6

 2.1.3. Eskola jazarpenaren parte-hartzaileen profilak/rolak eta jarrerak..... 7

 2.1.4. Eskola jazarpenaren eragin psikologiko eta soziala biktimengan, erasotzaileengan eta ikusleengan 9

 2.2. Eskola jazarpenaren prebentzioa eta prebentzio programak/planak 10

 2.2.1. Jazarpena prebenitzeko KIVa programa 11

 2.2.2. Berdinen Arteko Tutoretza plana 11

 2.3. Antzerkiaren bidezko eskola jazarpenaren prebentzioa 12

 2.3.1. Antzerki Foro metodologia..... 13

3. Marko enpirikoa 16

 3.1. Esku-hartzearen proposamena 16

 3.2. Proposatutako esku-hartzearen emaitzak..... 17

 3.2.1. Lagina 18

 3.2.2. Lortutako emaitzak 19

 3.3. Etika profesionala 23

4. Ondorioak..... 24

5. Bibliografia 27

1. Sarrera

Eskolan, elkarren arteko jazarpena gaur egun ematen den errealitate bat da. Jazarpenak parte-hartzaileengan eta eskolan eragin negatiboak dakartzanez, prebentzioa ezinbestekoa da horrelako egoerak saihesteko.

Horregatik, Gradu Amaierako Lan honen helburua eskola jazarpenaren prebentziorako, hain zuzen ere ahozko jazarpenaren eta jazarpen sozialaren prebentziorako, esku-hartze bat diseinatzea eta martxan jartzea da, KIVa programan eta Berdinen Arteko Tutoretza planean oinarrituz eta Antzerki Foro metodologia erabiliz.

Gradu Amaierako Lan honetan zehar, lehenik eta behin, jazarpenaren inguruko marko teoriko bat aurkeztuko da. Ondoren, marko enpirikoan proposatutako esku-hartzea azalduko da. Esku-hartzea Euskal Autonomia Erkidegoko eskola itunpeko batean nola jarri den praktikan azalduko da, lortutako emaitzak aztertuz eta inplikazioak azalduz.

Azkenik, ondorio batzuk eta etorkizunerako hobekuntzak adieraziko dira.

2. Marko teorikoa

2.1. Eskola jazarpena

2.1.1. Eskola jazarpenaren definizioa

Eskolako lehenengo urteek sozializatzeko eta norbera eta besteak ulertzeko aukera ematen diote ikasleari. Hala ere, horrekin batera, gatazkak sortzen hasten dira, ikasleen artean zein norbanakoaren artean (Romera-Felix et al., 2017). Ikasleen arteko elkarrekintzan eta harremanetan eman daitekeen egoera larrienetako bat “*bullying*”-a edo jazarpena deritzo. Aipatu beharra dago, Gradu Amierako Lan honetan zehar “*bullying*” hitza erabili beharrean, jazarpen edo eskola jazarpen hitzak erabiliko direla.

Olweusek (1993) jazarpena horrela definitzen du: “Berdinen arteko abusuak eragindako biktimizazioa edo tratu txarrak jazarpen fisiko edo/eta psikologikoko jokabidea da, ikasleak beste baten aurka egiten duena, eta hura aukeratuz eraso errepikatuen biktima gisa” (Serrate, 2007, 16. orr).

Wanceulen (2016) arabera, eskola jazarpena oso ohikoa da hezkuntzako edozein etapetan eta azpimarratzen du, erasotzaileak helburu kaltegarri batekin biktimari/erasotuari jazarpena egiten dio, kalte fisiko/psikologikoa eraginda.

Eskola jazarpena, izenak berak esaten duen bezala, eskola eremuan eta eskola partaideen artean ematen den indarkeria mota bat da (Vera, 2010). Hala ere, Serratek (2007) adierazten duen bezala jazarpena guztioi eragiten digun fenomeno da. Esaldi horrekin adierazi nahi duena da, eskola eremutik kanpo ere, adibidez, eskola kanpoko ekintzetan, parkean, herrian, etab., jazarpena gerta daitekeela, eta denok, gizarteko kide guztiok, erne egon behar direla. Ikastetxean, normalean, irakasleak antzeman ezin duen tokietan ematen da, hala nola, korridoreetan, komunetan, patioan, eskolaren sarreran, etab. (Orte, 2003).

Eskola jazarpena gertatzen dela esan ahal izateko eta bestelako gatazkekin alderatzeko, ezaugarri/osagai batzuk bete beharko dira. Verak (2010) eskola jazarpenaren lau osagaiak definitzen ditu:

1. Biktima bat dago.
2. Erasotzaile bat (edo gehiago) dago. Erasotzaile batek edo talde batek jazarpena eragin dezake.

3. Biktima eta erasotzailearen artean desberdintasun egoera bat ematen da. Serratek (2007) zehazten duen bezala, biktimaren eta erasotzailearen arteko harreman hierarkikoa ematen da.
4. Jokabideek (indarkeria) denbora irauten dute, eta errepikakorrak dira. Akzioak ez dira momentu puntual bateko gauzak, denborarekin errepikatzen dira.

Gomez-Ortiz et al.-en (2017) arabera, beste ezinbesteko osagai bat eman beharko litzateke jazarpena gertatu ahal izateko: mina egiteko nahia edo desira. Erasotzaileak biktimari mina egiteko motibazioa du.

Horretaz gain, agresibitatea eta eraso ezberdindu behar dira. Alde batetik, eraso ekintza sinple eta eraginkorra da. Bestalde, agresibitatea joera edo antolamendu bati dagokio (Serrate, 2007). Horregatik, oso garrantzitsua da konturatzea indarkeria ez dela agresibitatearen sinonimo bat, baina bai elkarrekiko lotura daukatela.

Eskola-jazarpena definitu ostean, jazarpen mota ezberdinak definituko dira, bakoitzaren ezaugarriekin.

2.1.2. Eskola jazarpenaren motak

Serratek (2007) eskola jazarpenaren motak zehaztu ditu ezaugarri eta norabidearen arabera (zuzena edo zeharkakoa). Guztira bost jazarpen mota definitzen ditu:

1. Taula. Eskola jazarpen motak (Serrate, 2007tik egokituta).

Eskola jazarpen mota	Ezaugarriak
Fisikoa	<ul style="list-style-type: none"> ● Zuzena: gorputzarekin indarkeria erabiltzea: kolpeak, ostikoak, objektuekin jotzea, listua bota, etab. ● Zeharkakoa: gorputzarekin indarkeria ez erabiltzea. Adibidez, eskola irteeran itxarotea, biktima inguratzea, biktimari gauzak kendu, biktimaren gauzak apurtu eta ezkutatu, etab. ● Lehen Hezkuntzan Bigarren Hezkuntzan baino maizago ematen da.
Ahozkoa	<ul style="list-style-type: none"> ● Zuzena: batez ere, irainak eta ezizenak. Horretaz gain, gutxiespena jendaurrean, akats fisikoak nabarmentzea, etab. ● Zeharkakoa: beste pertsona bati buruz txarto hitz egitea. ● Ahozko jazarpena, bost mota ezberdinetatik ohikoena da. Azken finean, biktimarengan boterea inposatzeko azkarrena da. ● Gaur egun, teknologiari esker, errazagoa da horrelako jazarpena egitea.

Psikologikoa	<ul style="list-style-type: none"> ● Zuzena: aginduz erasotzailearentzako lanak egitea, opariak eskatu, biktima bere burua erruduntzat hartzera behartzea, etab. ● Zeharkakoa: erasotzaileak emozionalki manipulatzeko du biktima, xantaia eginez, bere ahuleziekin jolastuz eta abusotzaileak nahi duena egiten ez duela esanez. Biktima emozionalki abusotzailearen zain dago denbora guztian. ● Nesketan mutiletan baino gehiago ematen da.
Soziala	<ul style="list-style-type: none"> ● Zeharkako jazarpen mota bat bezala ematen da. ● Norbait baztertzea, hau da, taldeko partaide izaten ez uztea. Ez ikusiarena edo ez entzunarena egin biktimari.
Sexuala	<ul style="list-style-type: none"> ● Neskei edo mutilei beren baimenik gabe ukituak egitea, sexu-mesedeak eskatzea eta ikaskideen arteko harremana gainditzea, beste pertsonak nahi ez badu. Tonu eta helburu sexual batekin beste pertsonarekin hitz egitea berak nahi gabe.

Garai honetan, ciberbullyinga edo ciberjazarpena pil-pilean dagoen beste jazarpen mota bat da. Casas eta al.-ek (2017) definitzen duten bezala, jazarpen tradizionala dimentsio anitzak hartzen hasi da; ciberjazarpenak, jazarpenaren definizio bera hartzen du, alegia, denboran errepikatzen den indarkeria psikologikoa eta soziala, (normalean) baina, teknologia medio izanda.

Zein motako jazarpena edo jazarpen konbinazioa erabiltzen den erasotzaileak erabakiko du, bakoitzak jarduteko modu bat duelako (Serrate, 2007).

2.1.3. Eskola jazarpenaren parte-hartzaileen profilak/rolak eta jarrerak

Eskola-jazarpenean hainbat eragileek parte hartzen dute: erasotzaileak (edo erasotzaile taldeak), biktimak eta ikusleak. Nahiz eta hiru multzo ezberdinetan banandu, oso garrantzitsua da jazarpena guztion ardura dela konturatzea eta onartzea.

Hasteko, Serratek (2007) definitu duen bezala, erasotzailea biktimari indarkeria fisikoa edo hitzezkoa modu jarraituan eragiten dion pertsona edo taldea izango da. Gainera, bi erasotzaile mota aurki ditzakegu, pasiboak edo aktiboak, haien partaidetzaren arabera. Olweusek (1998; Serrate, 2007) erasotzaile aktiboak biktimarekin harreman zuzena duena dela esaten du. Pasiboak aldiz, ondorengo puntuetan ikusle gaizkide eta ikusle tolerantetok deituko direnak, erasotzailea babesten edo jarraitzen dutenak dira.

Ohikoena da erasotzaileak jazarpena bakarrik ez egitea; normalean gertatzen dena da erasotzaile pasiboen taldea atzetik duela hartzen dituen erabakiak babesten.

Erasotzaileen ezaugarri psikologikoak kontuan hartzekotan profil psikologiko bat jarraitzen dute. Alde batetik, izaera erasokorra eta oldarkorra dute, komunikatzeko, negoziatzeko eta desirak adierazteko zailtasunak dituzte, eta trebetasun sozial gutxi erakusten dute. Gainera, haserrea kontrolatzeko zailtasunak dituzte eta oso etsaiak dira. Besteekiko harremanak gatazka-oinarri gisa hartzen dituzte eta besteak menderatzeko etengabeko beharra dute (Olweus, 1998; Serrate, 2007).

Gehienetan, erasotzaileek arraza, kolore, itxura eta izaeraren arabera haien biktima "aukeratzen" dute eta talde zehatz batzueganako dauden aurreiritziak oinarri bezala hartzen dituzte. Adibidez, gaur egun, gizartean ezarrita dauden edertasun kanonen arabera lodi egotea ez da ondo ikusten; horregatik, erasotzaileek ezaugarri hori duten pertsonak biktimatzat hartzen dituzte (Barrik, 2010). Horretaz gain, erasotzailea autoestimua gutxiesten eta xurgatzen duena da. Erasotzaileen ezaugarriekin bukatzeko, kontuan izan beharreko beste faktore garrantzitsu bat familia eremua da. Sozializazioaren lehen faseak familia eremuan ikasten dira eta haurrak txikitatik familian ikusten dituen rolak oinarritzat hartzen ditu eta kopiatzen ditu. Ondorioz, familia eremuan gertatzen denak zuzenean eragingo du haurraren jarreran eta jarduteko moduan (Serrate, 2007).

Bigarrenik, biktimen ezaugarriak aztertuta, erasotzaileek hainbat arrazoiengatik biktimak aukeratzen dituzte, lehen azaldu den bezala, biktimek erasotzaileentzat erakargarriak izan daitezkeen hainbat ezaugarri adierazten dituztelako, eta, horien ondorioz, erasotzaileak biktimarengan ahultasuna eta biktimarekiko nagusitasuna ikusten du. Bi motatako biktimak topa daitezke: aktiboak eta pasiboak. Alde batetik, biktima aktiboak erasotzailearen jarrera berdina hartzen du, hau da, bortitz jartzen da. Bestalde, biktima pasiboak (gehienak talde honen barruan sartzen dira) pertsona ez-segurua, barnerakoiak, jazarpena isilean jasaten dutenak, gizarteratzeko zailtasunak dituztenak eta, batzuetan, arazo mota ezberdinak dituztenak dira, hala nola, arazo psikologikoak eta ezgaitasun ezberdinak dauzkatenak dira. Gainera, fisikoki edertasun

kanonetik edo “normaltasunetik” kanpo egoten dira, hots, lodi edo oso argal daude, betaurrekoak daramate, etab. (Serrate, 2007).

Biktimen ezaugarri psikologikoen artean, antsietatea, ez-segurtasuna eta heldugabetasuna azpimarratu daitezke. Horrez gain, ez dute haien burua babesten eta haienganako autokontzeptu eta autoestimua baxua izaten da. Bukatzeko, biktimen familia eremua aztertuta, ikus daiteke familian maitasuna ematen zaiola biktimari, baina normalean haurrak edo nerabeak ez du elkarbanatzen sufritzen ari den jazarpena. Biktima etxean seguru sentitzen da normalean eta errespetuzko eta tolerantziako eremuan hezi dute (Olweus , 1998; Serrate, 2007).

Azkenik, ikusleak dira eskola jazarpenaren hirugarren partaideak. Verak (2010) lau mota ezberdin bereizten ditu:

1. Ikusle gaizkidea: erasotzaileak egiten duena babestuko du. Hasieran aipatutako erasotzaile pasiboa izango dena.
2. Ikusle tolerantea: ez du zuzenean biktima erasotzen baina gertatzen dena ezagutzen du eta onartzen du.
3. Ikusle neutroa: parte hartze zuzena arazoarekin ekiditen dutenak dira jakinda jazarpena gertatzen ari dela. Olweusek (1998; Serrato, 2007) ikertu duenaren arabera, ikusleek gehienetan ez dute biktima laguntzen erasotzaileek haiengan jartzen duten presioa edo beldurragatik.
4. Ikusle defendatzailea: biktima babestuko du eta irakasleei jazarpenaren berri emango die.

2.1.4. Eskola jazarpenaren eragin psikologiko eta soziala biktimengan, erasotzaileengan eta ikusleengan

Eskola jazarpenaren ondorioek ikasle guztiei eta ikastetxe osoari eragiten diete. Eskola jazarpenak ondorio oso kaltegarriak ditu inplikaturako guztientzat, baina ondorio larrienak biktimengan ikusten dira eta ondorioak hain muturrekoak ez izan arren, eragina dute osasunean, bizi-kalitatean, ongizatean eta pertsonaren garapen egokian (Garaigordobil, 2011).

Eusko Jaurlaritzak (2015) adierazten duen bezala, jazarpenari buruz argitaratu zuen gidan, indarkeria horren ondorioz biktimak hainbat ondorio jasan ditzake. Adibidez,

eskola-porrota, trauma psikologikoa, arrisku fisikoa, asebetetze-eza, herstura, zorientasun-eza, nortasun-arazoak eta norbanakoaren garapen orekaturako arriskua. Gainera, biktimaren rola barneratzea ekar dezake. Haurtzaroan edo nerabezaroan jasandako indarkeriaren ondorioz, helduaroan besteengan konfiantza izateko zailtasunak izango ditu, eta eremu psikologikoan erabateko desdoikuntzak jasatea edo modu desegokian garatzea.

Eusko Jaurlaritzak (2015) zehaztutako jazarpenari aurre egiteko protokoloan, jazarpenean parte hartzaileen ondorioak aipatu ditu. Atal honetan, erasotzailearen eta ikuslearen jazarpen ondorioak aipatuko dira. Alde batetik, erasotzailea hierarkia-mendekotasun ereduan oinarritutako harremanak barneratzea eragin dezake (helduaroan zehar ere) eta indarkeriazko gertakariak sozialki onartuta eta sarituta daudela ere pentsaraz dezake. Jazarpen sexistari dagokionez, ikerketa batzuek adierazi dute erasotzaile-rola hartu izateak helduaroan indarkeria matxista eta tratu txarrak gauzatzea ekar dezakeela.

Bestalde, ikusleengan bidegabekeriarekiko eta berdintasun-ezarekiko jarrera pasiboa eta adeitsua sor dezake, eta norbanakoen balioa eta harreman positiboak modu desegokian balioestea eragin, hau da, harreman osasuntsua identifikatzen kostatuko zaie.

2.2. Eskola jazarpenaren prebentzioa eta prebentzio programak/planak

Aurreko atalean adierazi den bezala, eskola jazarpenak ondorio oso kaltegarriak ekar ditzake; horregatik, prebentzioa oso garrantzitsua izango da egoera horiek ekiditeko eta saihesteko. Serratek (2007) zehazten du, prebentzioak ez diola soilik eragile zuzenei (erasotzailea/k eta biktima) eragingo, baizik eta inguruan dituzten pertsona guztiei ere. Beste modu batera esanda, eskolako giroan eragina izango du. Horregatik, Gómez-Ortiz eta al.-ek (2017) azpimarratzen dute, oso garrantzitsua dela ikasleen inguruko pertsonen elkarlana eta komunikazioa; gaur egun, jazarpena eskoletatik haratago gertatzen delako eta eremu ezberdinetan prebenitu behar delako.

Prebentzio programek indar handia hartu dute hezkuntza eremuan jazarpenarako prebentzioan izan duten arrakastagatik. Yerger eta Gehretek (2011, Seoane, 2020-n) adierazten duten bezala, prebentzio programek joera agresiboak murriztu dituzte eta

emozioak lantzerako orduan eraginkorrak izan dira. Horretarako, eskola jazarpena prebenitzeko KIVa programa eta Berdinen Arteko Tutoretza Plana aurkeztuko dira.

2.2.1. Jazarpena prebenitzeko KIVa programa

KIVa Finlandian sortu zen eta gaur egun eskola ezberdinetan erabiltzen da jazarpenari aurre egiteko. KIVa programa hiru ataletan oinarritzen den jazarpenaren aurkako eta prebentziorako programa da. Hiru oinarriak prebentzioa, esku-hartzea eta jarraipena dira.

Alde batetik, prebentzioa (jazarpena ekiditeko) edo prebentzio ekintzak ikasle guztiei zuzenduta daude eta eskola jazarpena prebenitzera bideratuta daude. Neurri hauek KiVaren bizkarrezurra osatzen dute. Bigarrenik, esku-hartzeko (jazarpenari aurre egiteko tresnak) ekintzak, eskola jazarpenean parte hartu duten haur eta nerabeei zuzenduta daude. Helburua da ikastetxeei eta ikasleei konponbidean oinarritutako tresnak ematea jazarpenarekin amaitzeko. Azkenik, KiVak ikastetxeetako egoeraren jarraipena (ikuskapena) egiteko tresnak eskaintzen ditu urteko online inkesten bidez, bai ikasleei bai langileei. Feedback horrek informazioa ematen die ikastetxeei jazarpenaren aurkako lana nola hobetu jakiteko.

Gradu Amaierako Lan honetan KIVa programako lehenengo urratsa bakarrik landuko da, hau da, prebentzioa.

2.2.2. Berdinen Arteko Tutoretza plana

Berdinen Arteko Tutoretza Plana, eskola jazarpena ekiditeko eta bizikidetzak hobetzeko Espainian sorturiko hezkuntza estrategia bat da. Seoanek (2020) adierazten duen bezala, Planaren helburua ikasleen parte hartzearen bidez, eskolan leku seguru bat, jazarpenik gabekoa, sortzea da. Horregatik, ikasle bakoitzari bikote bat esleitzen zaio. Bikote horretan, batek tutore emozionalaren rola izango du eta besteak, laguntza jasoko du beste pertsonarengandik. Plan eta strategi horretan lortu nahi dena da errespetua, enpatia eta erantzukizuna garatzea.

Bi programa horien oinarrietan enpatia azpimarratzen da. Enpatia, berez, jazarpenaren prebentziorako beharrezkoa den balore bat da. Hain ezaguna ez den eta oinarri hori daukan beste estrategia bat antzerkia da.

2.3. Antzerkiaren bidezko eskola jazarpenaren prebentzioa

Antzerkiak edo antzerkigintzak, gatazkak edo bestelako egoerak, hala nola, eskola jazarpena, konpontzeko edo erantzun posible bat emateko trebetasunak edo gaitasunak garatzen laguntzen du. Antzerkiak partaideei aukera ematen die parte-hartzaileei hirugarren pertsonan egoerak antzemateko eta bizitzeko. Gatazken edo egoeren barruan ematen diren portaera eta jokabide ezberdinei buruz hausnartu dezakete. Horregatik, antzerkia norberaren portaerari buruzko hausnarketarako tresna da. Azken finean, antzerkia norberaren izaeraren eta portaeraren ispilu gisa funtziona dezake eta ondorioz, esperientzia horietan egoteak, kontzientzia soziala eta pertsonala errazago garatzen du (Muñoz, 2022).

Muñozen (2022) arabera, pertsonai bat sortzerakoan eta eraikitzerakoan, hiru prozesu ezberdinetatik pasatu beharko da antzezlea. Hasteko, bere burua aztertu beharko du; bigarrenik, beste partaideak behatuko ditu bere pertsonaia osatzeko; azkenik, bere baitan lan egingo du besteetan behatutakoa txertatzeko.

Feldenkraisek (2010, Muñoz, 2022-n) uste du antzerkiko pertsonai batek lau elementu izan behar dituela oinarri bezala, kontzientzia osoa izan ahal izateko momentu oro antzezlanean zehar. Oinarri horiek bat egin behar dute kohesio bat izateko. Hona hemen lau oinarriak: mugimenduak, sentimenduak, sentsazioak eta pentsamenduak.

Horretaz gain, antzerkiak gaitasun batzuk garatzen laguntzen du, kontzientziazioa ekintzekin lantzen duelako eta jokabide propioak eta besteenak aztertzen dituelako. Antzerkiari esker garatzen diren lau gaitasunek erabateko lotura dute gatazken edota eskola jazarpenaren prebentzio eta kudeaketarekin (Muñoz, 2022):

- Arazo/egoera beste perspektiba ezberdinetik aztertze gaitasuna: norberaren eta besteen esperientzietatik erlazionatzeko eta bestelako ikuspuntuak lantze gaitasuna.
- Aktiboki entzuteko gaitasuna: lankidearen ekarpenak entzuteko eta modu kritikoan aztertze gaitasuna.
- Ekintzen ondorioak kontuan hartze gaitasuna: egoera baten aurrean emandako erantzunaren ondorioak aztertze gaitasuna.
- Soluzio edo erantzun posible ezberdinak proposatzeko eta pentsatzeko gaitasuna: egoerari, perspektiba anitzekin, erantzun ezberdinak emateko gaitasuna.

Azkenik, aipatzekoa da, hainbat antzerki mota daudela, bakoitza bere ezaugarriekin. Gradu Amaierako Lan honetan landuko den antzerki mota Antzerki Foro deitutakoa izango da, Zapalduen Antzerkiaren tresna dena.

2.3.1. Antzerki Foro metodologia

2.3.1.1. Antzerki Foroaren jatorria eta onurak

Zapalduen Antzerkia Augusto Boalek 70. hamarkadan sortutako antzerki mota bat da. Antzerki mota hori, garai horretan ematen ziren bidegabekeriak salatzen sortu zen (García eta de Vicente, 2020). Gainera, Enríquezek (2020) azpimarratzen duen bezala, Boalek Freineren Zapalduaren Pedagogiaren oinarri berdinak hartu zituen antzerki mota hau proposatzeko, hain zuzen ere, pertsona guztiek beste pertsonari irakatsi ahal dietela. Horretaz gain, Boalek esaten zuen mundu guztiak antzezteko eta sortzeko gaitasuna duela (Enríquez, 2020).

80. hamarkadan, Zapalduen Antzerkitik sortu zen Antzerki Foro metodologia deitutakoa. Porcelen (2020) arabera, Antzerki Foroa protagonisten eta antagonisten arteko tentsioa edo gatazka erakusten duen antzezlan bat da, zapalkuntzan, jazarpean edo gizarte-egituran oinarritzen dena. Barauna eta Motosek (2009) esaten dutenaren arabera, Antzerki Foroa Boalen hitzetan, bizitza errealerako entsegu kolektiboa da, egunerokotasuneko agertokiak aurkezten direlako eta modu kolektiboan erantzun posibleak eman behar direlako (Granados, 2020).

Antzerki Foroa hainbat gauzetarako onuragarria da Benitez eta Abazen (2018) arabera (Granados, 2020):

- Gizarte-eraldaketatik abiatuta, arazo sozial, politiko eta kulturalak ikusarazteko.
- Pertsonen arazoez sentsibilizatzeko.
- Errealitate desberdinak ikertzeko, hainbat testuingurutatik abiatuta, hizkuntza artistiko eta sinbolikotik abiatuta.
- Gatazka eta testuinguru desberdinetarako konponbideak aurkitzeko.
- Gai sozial bati buruzko elkarrizketa komunak sustatzeko, prebenitzeko eta/edo eraldatzeko.

Antzerki Foro metodologiarekin, hainbat esparru pertsonal eta sozial landu daitezke Muñozen (2022) arabera:

- Beren buruaren eta besteen behaketa eta hausnarketa.

- Norberaren eta besteen portaeraren azterketa eta hausnarketa.
- Antzerki Foroaren helburua betetzeko behar denaren alde esku-hartzea, hau da, egoeran inplizituki parte-hartzea.
- Harreman aukera desberdinak errepikatzea eta sortzea.
- Orainaldian bestearekin lan egitea: bat-batekotasunarekin modu seguruan jardutea eta bestearen proposamenetatik oinarrituz.
- Ekintzaren jatorriari buruz galdetzea, gatazkaren sustraiari buruz hausnartzea.

Gaur egun, Antzerki Foroa mundu osoan zehar hainbat esparrutan erabiltzen den metodologia da. Gainera, hezkuntza eremuan indar handia hartu du, Derrigorrezko Hezkuntzan zein unibertsitateetan. Metodologia berritzailatzat hartzen da, eta gero eta egoera eta gai ezberdin gehiago lantzen dira (García eta de Vicente, 2020).

2.3.1.2. Metodologia

Hasteko, kontuan hartu beharreko lehenengo gauza Antzerki Foroa egin nahi den tokia da. Espazio segurua izan behar da, eta ikasgela edota bestelako eremuak erabiliko dira. Garrantzitsuena da ikasleak seguru eta lasai sentitzea jarduera egin ahal izateko. Lortu behar da ikaslea modu naturalean jokatzeko eta horregatik, eremuak eragin handia izango du (Miticanoy eta Ramírez, 2017).

Bestalde, Antzerki Foroak bi oinarri izango ditu. Lehenik eta behin, antzerkiko ikusleek ez dute ohiko antzerkian duten rol berdina izango. Hau da, parte-hartze aktiboa izango dute antzezlanean. Boalek (1980) *espect-actor* deitzen ditu, antzezlanean ikusleak eta antzezleak izango direlako. Bigarrenik, Boalen hitzetan, ikasleak izango dira antzezlanaren protagonistak, haiek sortuko dute antzerkia, teknika eta ezagutza ezberdinekin (García y de Vicente, 2020).

Metodologiari dagokionez, hasteko, dramaturgia bat sortuko da, hots, gatazka/egoera bat, lekua, denbora espazioa eta pertsonaiak zehazten dira. Pertsonai bakoitzari rol bat esleituko zaio, ideologia eta jarrera bat zehazten duena. Horretaz gain, Antzerki Foroan egingo den elkarrizketa eta itxiera zehaztuko dira. Itxiera horri faltsua deituko zaio, aldatu egingo delako ikusleei esker (García y de Vicente, 2020). Oso garrantzitsua izango da egoera edo gaia parte-hartzaileen bizipenekin bat egitea edo beraien eremu hurbilekoarekin zerikusia izatea; bere antzezlanaren dela sentitu behar dute eta horrela gehiago inplikatuko dira eta ondorioz, gehiago ikasiko dute (Calvo et al., 2015).

Bigarrenik, eszena antzeztu egingo da, hau da, gatazka ikusleei aurkeztuko zaie. Oso garrantzitsua izango da antzezleek ondo aurkeztea haien ideologia, jarrera eta rola. Adibidez, eskola jazarpeneko eszena bat antzezten baldin bada, erasotzaile bat izanda erasotzailearen rola aurkeztu beharko du eta biktimak biktimaren rola. Ez bada modu egokian ikusleei aurkeztu, egoera edo gai ez da ondo ulertuko (García eta de Vicente, 2020).

Hirugarrenik, *Curinga*, *Comodín* edo *Joker* rola izango duen bideratzailea jardueran parte hartuko du (García eta de Vicente, 2020). Hemendik aurrera Joker bezala adieraziko da. Ikasleen adinaren arabera, normalean irakaslea izaten da, galderak egin behar dituelako eta debatea bideratu behar duelako. Gainera, Jokerraren eginkizuna baita ere izango da parte-hartzaileak animatzea eta hausnarketa sustatzea. Egia da, Jokerra, nahiz eta bere ustez, eszenaren nondik norakoekin bat ez etorri, ezin da zuzenean inplikatu, hau da, bideratu beharra du erantzun edo soluzio posible askoren sorkuntza, orduan ezin izango ditu erantzunak deuseztatu (Calvo et al., 2015). Jokerrak debatea bideratu ostean eta erantzun edo irtenbide posible bat hautatu ostean, hori proposatutako *espect-actorea* antzerkian sartuko da eta aurretik antzezten zegoen pertsona baten rola hartuko du. Berririo eszena guztia antzeztuko da, baina itxiera *espect-actoreak* egindako proposamenaren ordeztuko da. Horrela, hainbat itxiera proposamen egingo dira (García eta de Vicente, 2020).

Azkenik, elkarrizketa/debate bati esker, klase guztiak erantzun edo irtenbide posible bat adostuko du. Horrekin lortu nahi dena da, etorkizunean antzeztu den egoeraren antza duen egoera bat topatzekotan, zer egingo duten adostea (García eta de Vicente, 2020).

2.3.1.3. Eskola jazarpena eta Antzerki Foroaren erlazioa

Calsamiglia eta Cubellsen (2016) arabera, Antzerki Foroari esker, "gauzak diren bezala izan behar dira, horrela direlako" esalditik ihes egiteko aukera ematen dio antzezleari. Izan ere, Antzerki Foroak bidegabekeriak antzemateko eta salatzeko aukera ematen du. Horregatik, eskola jazarpenaren prebentzioa lantzeko oso gomendagarria da horrelako metodologia eta tresnak erabiltzea. Gainera, irakasleari aukera ematen dio ikasleei egoera ezberdinak aurkezteko eta horietatik abiatuta baloreak eta gaitasun sozialak lantzeko.

Miticanoy eta Ramírezek (2017) eskola jazarpena lantzeko Antzerki Foroa tresna ezin hobea dela uste dute. Azpimarratzen dute eragin oso positiboa duela ikasleen arteko elkarrekintzan eta erlazioetan. Gainera, adierazi duten bezala, ikasgelako giroan lagundu zuen, eta ikasleen jarrera eta portaera modu egokian aldatu zen.

Horretaz gain, eskola jazarpenaren parte-hartzaileen ezaugarrien atalean adierazi den bezala, askotan beste pertsonekin erlazionatzeko edo jendartean integratzeko arazoak dituztenez, Antzerki Foroak eragin positiboa izango du gaitasun sozialak garatzerako orduan, hala nola, enpatia sortzeko, sentsibilizatzeko, etab. Horretaz gain, mugimenduarekin zerikusia duen ariketa denez, baita ere, garapen motorrean lagungarria izan daiteke (Granados, 2020).

Azkenik, oso garrantzitsua da kontuan hartzea jazarpen egoeraren bat klasean izatekotan, protokoloa martxan duena edo momentuan esku-hartzen ari dena, gomendatzen dela Antzerki Foroko jarduera ez egitea, egoera kaltetu ahal delako. Ez egotekotan, eskola jazarpena lantzeko metodologia egokia da eskola jazarpena prebenitzeko (Enríquez, 2021).

3. Marko enpirikoa

3.1. Esku-hartzearen proposamena

Marko teorikoan aipatutakoa kontuan hartuta, jazarpenaren prebentzioa antzerkiaren bidez jorratzeko hurrengo esku-hartzea proposatzen da. Esku-hartzeak KIVa programa eta Berdinen Arteko Tutoretza Plana izango du oinarri bezala. Gainera, Antzerki Foroa izango da proposamen honen euskarri metodologiko garrantzitsuena. Horregatik, esku-hartzea martxan jartzeko, tutoretza edota baloreak saioetan egingo da. Guztira, 5 saio izango dira, hau da, 5 ordu beharko dira esku-hartze osoa egiteko.

Multzoka sailkatuko dira esku-hartzearen saioak, hain zuzen ere, lau multzotan. Multzo bakoitzak bere helburu orokorra izango du. Hasteko, lehenengo multzoan (1. saioa), “norberaren autokontzeptua eta bakoitzaren eta besteenganako pertzepzioa eraikitzea, emozioak plazaratuz gurekiko eta besteekiko harremanak hobetzeko” izango da helburu orokorra. Hori betetzeko, galdera ezberdinak barne hartzen dituen fitxa bat (2. eranskina) eskuz bete beharko dute, norberaren eta taldeari buruzko galdera ezberdinekin.

Bigarren saioa baino lehen tutoreak eta orientazio sailekoak elkartzea komenigarria izango litzateke, egoeraren berri izateko eta 1. saiotik lortuko diren emaitzekin ikasgela ezberdinen testuinguruak aztertzeko. Bigarren multzoan (2. saioa), “eskola jazarpenaren, ahozko jazarpenaren eta jazarpen sozialaren definizioak osatzea, beste pertsona baten egoeran jarriz, rol edo jarrera ezberdinak antzemateko” helburu nagusia izango da eta jardueren artean, antzerkia adjektibo ezberdinekin egingo da (5. eranskina), rol ezberdinak hartuz. Ondoren, poster bat osatuko da jazarpen ezberdinen definizioekin (12. eranskina). Horretaz gain, hirugarren multzoan (3. saioa), “eskola jazarpenean parte hartzen duten rola ezberdintzea, ikuslearen rolan nabarmenduz, ikuslearen rola identifikatzeko eta ikuslearen garrantzia antzemateko” helburua lortu nahiko da. Ikasleek kasu honetan haien esperientziak kontatuko dituzte eta horren ostean, posterra egingo dute lekuko ezberdinak aztertuz (13. eranskina); saioa bukatzeko, mezu positiboak klasekideei idatziko dizkiete bizkarrean (14. eranskina).

Azkenik, laugarren multzoan (4 eta 5 saioak), “eskola jazarpenaren prebentzioa lortzea antzerkia erabiliz, egoera ezberdinei etorkizunean erantzun egoki bat emateko” deitutakoa egingo da. Horretarako, Antzerki Foroaren metodologia erabiliko da. Ikasleek antzerki ezberdinak proposatuko dituzte eta interbentzio txiki batekin egoerari erantzun posible bat emango diote.

Bestalde, saioen jardueren oinarriak LOMLOE (2020) legetik hartuta daude eta Balio Zibiko eta Etikorako Heziketa eta Arte Hezkuntza arloak barne hartuko ditu. Jarduerak ez dira kalifikatuko baina horietako batzuk, tresna ezberdinekin ebaluatuko dira. Saio bakoitzak bere konpetentzia espezifiko, deskriptore, helburu orokor, helburu didaktiko, eduki eta ebaluazioa ditu. Horiek denak, lehenengo eranskinean zehazten dira.

3.2. Proposatutako esku-hartzearen emaitzak

Aurreko puntuan azaldutako esku-hartze osoa, bere osotasunean, martxan jarri zen eta horregatik, bost saioak praktikara eraman ziren. Esku-hartzeak eskolan interes handia piztu zuenez, Lehen Hezkuntzako 6 mailako gela guztietan egin zen, hain zuzen ere, hiru geletan. Esku-hartzea hasi aurretik tutorearekin eta orientazio sailarekin guztia koordinatu eta antolatu zen. Ondorengo puntuetan lagina eta esku-hartzean zehar lortutako emaitzak azalduko dira.

3.2.1. Lagina

Proposatutako esku-hartzea Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko eskola baten egin zen, hain zuzen ere, Lehen Hezkuntzako seigarren mailan. Aipatzekoa da, itunpeko eskolan, Berdinen Arteko Tutoretza planetik abiatuta KIVa proiektuarekin batera, ikasle laguntzailearen ereduak sortu zuten eta gutxinaka-gutxinaka eskola osoan martxan jarri nahi den ekimena izan da. Ikasle laguntzaileen eginbeharrekoa da eskola jazarpen egoerak antzeman eta hauen berri izaterakoan, KIVa proiektuko batzordea daramaten arduradun eta irakasleengana joan eta egoera salatu. Bestalde, ikasleentzako laguntzaileak eta biktimentzako babesak ereduak dira, hau da, edozein ikasle haiengana joan daitekeelako jazarpen egoera baten salaketa egiteko eta laguntza eskatzeko.

Guztira, 75 ikaslek parte hartu zuten esku-hartzean, hiru gela ezberdinetakoak. Horrela, hiru testuinguru eta jarrera desberdinak aztertzeko aukera egon zen, talde oso heterogeneoa zelako, akademikoki zein sozialki. 75 ikasleetatik 29 mutilak ziren eta gainerakoak, 46 neskek.

Lehenengo taldea, LH6A deiturikoa, talde langilea eta parte-hartzailea zen. Akademikoki ikasleen artean ez zegoen hainbesteko ezberdintasuna, maila oso egoki batean zeuden, alegia, akademikoki gelako erritmoa eta maila oso orekatuta zegoen. Harremanaren aldetik, harreman ona antzematen zen eskola orduetan.

Bigarrenik, LH6B deitutako ikastaldeak, akademikoki oso maila egokia zeukaten. Baina, harremanaren aldetik, ikasleak haien artean ez ziren ondo eramaten. Horrek gelako erritmoa moteltzen zuen eta kurtsoko arazo sozialak handitzen zituen.

Azkenik, LH6D oso talde heterogeneoa zen, batez ere akademikoki. Nahiz eta maila akademiko ezberdinak egon, harreman eta giro ona nabaritzen zen gelan. Premia bereziko ikasle bat, AEN zuena, eta etorkin bat, euskara ikasten ari zena, taldeko partaideak ziren. Bi ikasleei egokitzapenak egin zitzaizkien, HPB-ko (Hezkuntza Premia Berezia) ikasleak idatziz egin beharreko jarduerak ordenagailuarekin egin zituen eta saio batzuetan PTa edo hezitzailea berarekin lan egin zuen. Bestalde, etorkina Hego Amerikatik etorritakoa zenez eta gaztelania ondo ulertzen zuenez, jarduerak itzuli zitzaizkion.

Esku-hartzea egin baino lehen, kurtsoan zegoen egoera ikasleen artean ez zen batere egokia eta ondorioz, jazarpen zalaketa bat egon zen gurasoen aldetik. Erasotzaile talde

batek kurtsuan jazarpena egiten ari zen patioan zein klasean. Erasotzaile taldeen partaideak hiru geletan banatuta zeudenez eta eskolako orientazio sailarekin hitz egin ostean, adostu zen esku-hartze osoa kurtsoko hiru geletan egitea.

Esku-hartzea martxan jartzerako momentuan, tutorea saioetan egon zen baina bera ez zen izan esku-hartzea praktikan jarri eta gidatu zuena. Horretaz gain, hiru tutoreetatik, jarduera ezberdinetan, batek bakarrik parte hartu zuen.

3.2.2. Lortutako emaitzak

Lehen Hezkuntza seigarren mailako benetako egoera zein zen jakiteko esku-hartzearen lehenengo saioa erabili zen. Saio horren helburua norberaren autokontzeptua eta bakoitzaren eta besteenganako pertzepzioa eraikitzea zenez, galdera sorta ezberdina helarazi zitzaien. Galdetegiari esker, testuingurua zein zen antzematea lortu zen; alegia, ikasleen arteko liskarrak eskola orduetan gertatzen zirela eta ikasle batzuk ez zirela guztiz eroso sentitzen haien ikaskideekin. LH6A eta LH6Dren jarrera saio hasieran ez zen batere egokia izan, ez zuten ulertzen zergatik horrelako galderak egin behar zituzten eta ondorioz, galderak ulertzeko eta egiteko zailtasunak izan zituzten. Gainera, ordutegiaren arabera, arratsaldeko orduetan saioa egin zutenez, ikastaldeei gehiago kostatu zitzaien kontzentratzea. Bestalde, LH6Bn hasierako jarrera oso egokia izan zen eta parte-hartzaile ibili ziren saioan zehar.

Dena den, saioaren bukaeran saioaren ebaluazio bezala ikasleek emozioen ebaluazioa (4. eranskina) bete behar zutenez, sentitutakoa adierazi zuten. Orokorrean, hiru geletatik, gehienek adierazi zuten ez zirela batere eroso sentitu jarduera egiterakoan, haien buruari buruz pentsatzea kostatzen zitzaielako. Beste batzuk ordea, gutxiengoa, eskertu zuten horrelako jarduerak egitea, haien buruari buruzko hausnarketa sakon bat egiten ez zirelako inoiz gelditu. Aipatu behar da, ikasleek aipatu zutela, marrazkiari esker haien buruari buruzko hausnarketa eta besteenganako sentimenduak plazaratzeko aukera izan zutela eta errazagoa egin zitzaiela.

Horretaz gain, saioaren azken hausnarketan besteekin dituzten harremani buruz hitz egin dute. Horrekin batera, momentu horretan seigarren mailan gertatzen ari zen jazarpen egoerari buruz aritu ziren. Beraz, lehenengo saio honetako helburuak hiru geletan lortu zirela esan daiteke ikasleek haien buruari buruzko hausnarketa bat egin zutelako eta kurtsoko egoerari buruz sentitzen eta bizitzen ari zirena azaldu zutelako.

Ondorengo saioan (2. saioa), jazarpena lantzen hasi ziren, horretarako, lehenengo jarduera egiterako orduan, seigarren mailan dauden erasotzaileei adjektibo desegokiak eta desatseginak jarri zaizkie, baina antzerkia egiterakoan, klasekideak ez ziren ausartzen erasotzaileei aurre egitera, batez ere taldeko liderra denari. Debate bat sortu zen horren ostean eta bakoitzak sentitutako adierazterako momentuan gehien errepikatu zen esaldia honako hau izan zen: “adjektibo txar bat izan arren, ondo sentitu naiz jolas bat zelako eta egitean hori ez zaidalako gertatzen”. Horretaz gain, aipatu zitzairen edozein kasutan txarto sentitzekotan jardueratik ateratzeko eskubidea zutela. Horrela gertatu zen LH6Dko ikasle batekin. “Argala” adjektiboa jarri zitzaion bizkarrean eta geroago, kontatu zuen bere etxean orain dela urte batzuk, ez zutela jatekorik eta oso argal ikusten zuela bere burua. Aipatzekoa da, irakasleak honen berri ez zeukala.

LH6A eta LH6Bkoek saioa bukatu zuten eta ondorioz, helburuak bete zituzten. Jazarpenaren definizioa gela osoaren artean lortu zen eta ikasle guztiei argi geratu zitzairen zer zen jazarpena, nortzuk ziren jazarpenaren partaideak eta zer nolako egoera zegoen kurtsoan. Ikasle batek adibidez, saioaren erdian eskua altxatu eta esan zuen: “momentu honetan uste dut kurtsoan dagoen egoera jazarpen egoera bat dela, hain zuzen ere, ahozko eta jazarpen soziala”. Hortik abiatuta, Gradu Amaierako Lan honetan, ahozko jazarpena eta jazarpen soziala lantzen denez, horien bien definizioa osatu zuten.

LH6D gelak aldiz, saioaren lehenengo jardueraren ostean (adjektiboen jardueran) egindako debatean sakontzea erabaki zuten. Debatean, sentitutakoari buruz hitz egin ostean, erasotzaile taldean dagoen liderrari buruz hitz egiten hasi ziren. Gelako neskek kasu honetan, erasotzaile taldean ez zeudenak, “esclavo”ei buruz hitz egiten hasi ziren eta zer nolako jarrera zuten lider horrekiko azpimarratu zuten. Debatearen nondik norakoak ikusita, “la espiral del silencio” zer den azaldu zitzairen. “La espiral del silencio” berez jarrera bat da taldeetan ematen dena, batzuk zerbait esaten dutenean eta beste batek kontrakoa esan ordez, gehienek adierazitakoa esaten duenean ematen da. Bat-batean, elkarrizketan erasotzaile taldean zegoen partaide batek honako ekarpena egin zuen: “ez dugu beti esaten edo agintzen digutena egin behar, batzuetan ezetz esan behar da”.

Hirugarren saioan, hasteko, LH6Dkoek aurreko saioan osatugabeko definizioak posterrean adierazi zituzten. Bestalde, hirugarren saioaren helburua guztiz bete zen hiru

geletan, hau da, eskola jazarpenean parte hartzen duten rola ezberdintzen ikasi zituzten eta ikuslearen rolean nabarmendu zuten, eta eragile horri eman beharreko garrantzia ematen ikasi zuten. Antzeman dute zer nolako ikusle rola hartzen den orokorrean kurtsoan (ikusle neutroa gehien bat, baina baita ere, ikusle gaizkidea edo tolerantia), eta gero, bakoitzak normalean hartzen duen rola adierazi du.

Saioaren bukaeran sortu ziren elkarrizketetan eta hausnarketetan ikusle bezala zer nolako jarrera hartuko zuten adierazi zuten. Gehienek, Verak (2010) egindako ikusle sailkapenetik, ikusle defendatzailearen rola gelako % 91-k hartu zuten (68 ikaslek hain zuzen ere) eta gainerakoek, hau da, % 9-k (7 ikasleek) ikusle neutroaren rola. Ikasle neutroa izatea erabaki zuten ikasleen artean erasotzaile taldeko partaideak ziren 3 zeuden. Aukeraketaren arrazoa izan zen ez zutela haien burua gai ikusten erasotzailearen aurka joateko eta biktima defendatzeko; baina, jazarpena ez egiteko konpromisoa hartzen zutela.

Saioan baita ere ikasleek esan zuten, biktima babestu baino lehen egoeraren berri izatea oso garrantzitsua dela eta argi izan behar dutela nor den biktima eta nor erasotzailea. Hau da, eraso detektatzea eta ondoren biktima laguntzea eta ikusle defendatzailearen rola hartzea. Horretaz gain, saioaren azken jardueraren ostean (mezu positiboak idaztea bizkarrean), LH6Bko ikasle batek, gogoratu beharra dago gela horretan liskarrak egoten zirela ikasleen artean, honako hau esan zuen: “momentu honetan antzeman dut gelan kide onak ditudala eta horrela ikusten nautela. Horregatik, beraiek jakin dezaten lagun bat hemen dutela”. Saioarekin bukatzeko, adostu zen talde handian zer egin beharko litzateke biktimarekin ikusle defendatzaile bezala eta hiru hitz atera ziren: babestu, lagundu eta laguntza eskatu.

Laugarren eta bosgarren saioetan, Antzerki Foro metodologia erabiltzeko aukera egon zen. Saioen hasieran, hiru geletan, aurreko saioetan landutakoari buruzko hausnarketa eta debate bat sortu zen. Ikasleek ikusle defendatzailearen jarrera behin eta berriz azpimarratu zuten elkarrizketan zehar. Gainera, aurreko saioetan erabilitako eta sortutako materiala euskarri bezala hartzen zuten diskurtsoa sortzerakoan; adibidez, hormetan jarritako jazarpenaren definizioaren eta ikusle ezberdinen posterrak aipatzen zituzten (12. eta 13. eranskinak). Debatea bukatu ostean, saioarekin hasi ziren.

Jazarpen egoera ezberdinak esleitu zitzaizenez, antzerki ezberdinak egin zituzten eta egoera ezberdinei irtenbide posible bat eman zioten. “Erasotzaile bat saiaturako da beste haurrak konbentzitzen beste haur bat iraintzeko” egoeran adibidez (15. eranskina), egin zuten antzerkia bi erasotzaileak haur batengana gerturatu ziren (X deituko dena) eta adierazi zioten haien laguna izateko, “memela” horri (Y deituko dena) iraindu behar ziola. Haurra bi aldiz pentsatu gabe erasotzaileek “memela” deitutako umearengana (Y) gerturatu zen eta iraintzen hasi zitzaion, potoloa eta tuntuna zela esanda. X erasotzaileengana bueltatu zenean, taldean onartu zuten. Ikasleek, antzerki foro metodologia erabilita alde batetik, X-engan gerturatu ziren eta esan zioten ez zuela inolako irainik esan behar beste pertsona bati talde batean onartua izateko. Beste batzuk, erasotzaileengana joan ziren eta esan zieten gelditzeko eta horrelako jarrerak onartezinak zirela. Beste *espec-actore* batzuk irakasleengana edo ikasle laguntzaileengana joan ziren egoera berri ematera eta hori salatzerako. Horretaz gain, gainerako ikasleek, Y biktimarengana joan ziren babestera eta laguntzera, aurreko saioan adostutakoa praktikan jarri.

Bestelako egoeretan oso antzeko irtenbideak proposatu ziren. Biktima babestu, laguntza eskatu, egoeraren berri zegoenean salatu eta erasotzaileei gelditu behar zirela esan. Horretatik, irtenbide eta soluzio ezberdinak ikusita egiaztatu daiteke, saio hauen helburua bi geletan guztiz bete zela, egoerak aurkeztu ziren eta ikasleek ematen zieten erantzun edo irtenbideak baliagarriak ziren egoera bakoitzarentzat.

Gela batean, hain zuzen ere kurtsoko jazarpen egoeraren erasotzaile liderra zegoen gelan (LH6B), erantzun edo irtenbide bat proposatu beharrean, ikasle batzuek erasotzailearen jarrera hartu zuten interbentzioa egiterakoan, hau da, *espec-actore* izaterakoan. Horregatik, jarrera horren ostean, Jokerrak (jardueraren gidariak) ikasle-taldearekin hitz egin zuen eta egiten ari zirenaren berri eman zien, hau da, jazarpena prebenitu ordez, jazarpena egiten ari zirela. Elkarrizketa horren ostean, taldekideen jarrera aldatu zen eta hurrengo antzezpenei irtenbide bat bilatzen saiatu ziren, aurretik aipatutakoen (LH6A ETA LH6Dkoen) oso antzekoak, alegia, biktima babestu, defendatu eta laguntza eskatu. Aipagarria da ikasle laguntzaileen papera zein garrantzitsua izan den interbentzio ezberdinetan. *Espec-actore*ek ez zutelako beti tutorearengana jotzen, baizik eta ikasle laguntzaileengana.

Azken saioaren bukaeran, azken debatea egiterakoan, ikasle bakoitzak konpromiso ezberdinak hartu zituen. Gehien errepikatu zena izan zen biktima lagundu eta babestu egingo zutela jazarpen egoera baten aurrean.

Horretaz gain, ikasleek, saioak egin ahala, konfiantza gehiago hartu dute eta parte-hartzeko beldurra gainditu dute, parte-hartzea lehenengo saiotik azken saiora handitu delako eta bakoitzak sentitzen zuena adierazten duelako, adibidez, eroso sentitzen ez zenean aipatu eta ekarpen bat egin nahi zutenean beldurrik gabe esan. Horregatik, saio guztietan lortu behar zen helburu didaktikoa lortu dute, alegia, parte-hartzea eta komunikazioa sustatzea eta haien sentimendu eta emozioei buruz hitz egitea. Gainera, behin eta berriz saioen debateetan aipatu den “txibata/o” hitzak dakartzan aspektu negatiboak alde batera utzi dituzte, azken saioan adierazi zutelako ez daudela txibatarik edo txibatorik, baizik eta, laguntza eskatzen duten pertsonak. Emaitzak gelaz gela hobeto zehaztuta 11. eranskinean topatu daitezke.

Amaitzeko, ikasleek hasieran zegoen jazarpen egoerari aurre egiteko tresna ezberdinak ikasi dituztela konturatu ziren, antzeztu zituzten egoerei eta emandako irtenbideei esker. Gainera, biktima zen ikaslea bere buruarekiko konfiantza garatu zuen gelan azken debatean eskua altxatu eta aitortu zuen erosoago sentitzen zela. Gainera, aipatu zuen lagun berriak egin zituela, hobeto ezagutu zituelako jarduera ezberdinei esker.

3.3. Etika profesionala

GRAL honetan proposatzen den esku-hartzea praktikara eramaterakoan etika profesionalak errespetatu dira. Hasteko, Oinarrizko eskubideen esparruan eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean enuntziatutako eskubideen arabera jardun zen, hau da, haurren eskubideak errespetatu ziren. Bigarrenik, ikasleen autonomia eta askatasuna errespetatu zen, ekintza subjektuak errespetatzeko printzipioan oinarrituz. Azkenik, jasotako emaitzen konfidentziasuna bermatu zen eta ahal izatekotan anonimotasunean emaitzak jaso ziren.

4. Ondorioak

Jazarpen egoerak oraindik eskoletan pil-pilean dagoen gai bat da eta egunero eskoletan hori prebenitzeko saiakera ezberdinak egiten dira. Wanceulek (2016) adierazten zuen bezala, jazarpena hezkuntzako edozein etapetan ematen den egoera da, eta zoritxarrez,

oso ohikoa izaten jarraitzen duen egoera da. Horregatik, Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia eskola jazarpenaren prebentziorako esku-hartze bat diseinatzea eta praktikan jartzea izan da, Antzerki Foroa erabiliz.

Horretarako, esku-hartzearen diseinua marko teorikoan aipatutako informazioaz baliatuz eta antzemandako hutsunean betetzeko asmoz egin da. Alde batetik, Augusto Boalek (1980) proposatutako metodologia oinarritzat hartu da, metodologia horri esker, antzerkian parte hartzen duten pertsoneri beste ikuspuntu batetik egoera ezberdinak antzemateko aukera ematen die; gainera, egoerei erantzuna emateko diseinatuta dagoenez, parte-hartzaileek prozesuaren parte sentitu dira. Bestalde, jasotako informazioa aztertuta, zeharka gehien sakondu diren gaika izan dira autokontzeptua eta bakoitzaren sentimenduak eta emozioak.

Esku-hartze osoa, hau da, 5 saioak, praktikan jartzeko aukera egon zenez, ikasleen aurrerapausoak sozialki eta pertsonalki ikusteko eta antzemateko aukera egon zen. Horregatik, esku-hartzearen emaitzak aztertuta, gertatzen ari zen eskola jazarpenaren ondorioz, ikasle batzuen hasierako jarrera ez zen batere egokia izan jardueretik, gehien bat erasotzaile taldeko partaideak zirentzat. Baina, gainerako ikasleentzat zerbait ikasteko eta egoera konpontzeko aukera ezin-hobea zela antzeman zuten. Dena den, esku-hartzearen bukaeran ikasle guztiak aurrera pausuak eman zituzten jarreraren aldetik, batzuek beste batzuek baino gehiago. Erasotzaile taldean zeuden ikasle batzuek adierazi zuten bezala, ez da beti liderra jarraitu behar edo ez dira besteak zirikatatu behar. Bestalde, debate ezberdinetan sortutako erantzunak edo ekarpenak azpimarratzea ezinbestekoa dela uste dut. Alde batetik, bigarren saioan ikasle batek adierazi zuenean ez zela beti erasotzaileak adierazten eta agintzen duena egin behar, ikastaldea, tutorea eta ni neu harrituta geratu ginen. Momentu horretan, nabaritu zen bigarren saiotik ikasleengan eragin positibo bat izaten ari zela esku-hartzea.

Horretaz gain, adjektiboen jardueran antzeman zen, zer nolako aurrerapenak egiten hasi ziren eta ikasle batek deseroso sentitzen zela adierazi zuenean, ikusten zen sentitutako adierazten ikasi zutela eta gustatzen edo eroso sentitzen ez ziren egoeretatik ateratzeko gai zirela. Bestalde, jarduera horren ondorioekin jarraitzeko, arraroa izan zen zer nolako jarrera zeukaten LH6Bkoek kasu honetan, ez zirelako gai liderra baztertzeko eta horren aurka joateko. Baina, egia da, espero zen emaitza bat zenez, erabilgarria izan zen

prebentzioaren lanketarekin jarraitzeko. Gainera, posterrak egitearen onurak ikaragarriak izan ziren, euskarritzat hartzen zituztelako eta egoera desegoki baten aurrean behin baino gehiagotan aipatu egin zirelako.

Azken saioak oso ondo atera ziren, espero zena baino hobeto. Ikasleen parte-hartzea ugaria izan zenez, emaitza eta irtenbide askotarikoak lortu ziren. Horrek ikasleen emaitzetan guztiz erabilgarria izan dela esan daiteke.

Gainera, esku-hartzeak Enríquezen (2021) proposamena deuseztatzeko aukera eman du, alegia, gomendatzen zuela jazarpen egoera bat egotekotan Antzerki Foroaren metodologia ez dela egokia. Orientazio sailarekin batera erabaki zen esku-hartzea aurrera eramatea, eta haiek ere modu bukaeran, oso modu positiboan baloratu zuten, bai prozesua, baita lortutako emaitzak ere. Nire ustez, metodologia oso egokia ikusten dut jazarpena prebenitzeko, biktimak antzeman ahal zuelako besteenganako babesa izango zuela eta erasotzaile taldea konturatuko da gainerako pertsonak egiten ari zirena ez zutela sostengatuko.

Ondorioz, ebidentzia eta elkarrizketa guztiak ikusita, egiaztatu daiteke esku-hartzea ikasleen kontzientziazioan eta jazarpenaren prebentzioan lagundu zuela; hau da, esku-hartze eta Gradu Amaierako Lanaren helburua lortu dela eta antzerkia, Antzerki Foroa kasu honetan, metodologia egoki bat dela horrelako egoeren prebentziorako.

Bukatzeko Gradu Amaierako Lan honetan zehar eta esku-hartzearen diseinuan eta inplementazioan nik izandako inplikazioari buruzko hausnarketa bat egingo dut. Gradu hasieratik argi neukan gai honen inguruan lana jorratuko nuela. Zoritxarrez jazarpena egunerokotasunean ematen den egoera bat da. Horregatik, marko teorikoarekin hasi nintzenean, aurrezagutza batzuk nituen eta behin informazioa arakatuta, nekiena baino askoz gehiago ikasi dut jazarpenaren inguruan. Bestalde, esku-hartzearen diseinua egiterakoan argi neukanez zein izango zen bukaerako jardueren egitura, Antzerki Foroa egingo nuelako, aurretik zer motatako lanketa egin beharko zen galdetu nion nire buruari. Gainera, kontutan hartu beharreko gauza bat da, esku-hartzea diseinatzerakoan ez nekiela lagina zein izango zen edota zein testuingurutan lan egingo nuen. Horregatik, jarduera batzuk oso zehatzak dira testuinguru ezberdinetan erabiltzeko eta beste batzuk oso orokorrak, edozein momentutan eraldaketak egin ahal izateko. Gainera, ikasleen parte-hartzea momentu oro eskatzen denez, haien ekarpenak esku-hartzearen

diseinuaren parte bihurtu ziren. Etorkizunari begira, garrantzitsuena izango litzateke proposamen hau testuinguru zehatzetara egokitzea.

Bukatzeko, nire lanaren limitaziorik handiena izan da gela bakoitzean 25 ikasle zirela eta kopuru oso handia izan dela jarduera batzuk aurrera eramaterako momentuan, adibidez, Antzerki Foroaren jardueran, hainbeste ikasle batera interbentzio bat egiten ez ziren antzematen egiten zituzten ekarpenak eta gero debatean errepikatu behar zituzten. Egingo nukeena etorkizun batean emaitzak zehatzagoak izateko zera da: laginaren kopurua handitu baina multzoak edo taldeak txikitu; hau da, gehienez jota talde bakoitzean 15 pertsona izatea. Oso interesgarria izango litzateke baita ere kontrol talde batekin lan egitea, horrela bi taldeen arteko ezberdintasunak antzemateko aukera egongo litzateke.

Gradu Amaierako Lan honetatik eramaten dudana da, saioetan parte hartu duten 75 ikasleei zerbait irakatsi diedala eta haien bizitzan modu batera edo bestera nik diseinatutako eta praktikan jarri dudan esku-hartzeak eragin bat izan duela. Gainera, jazarpena guztion artean konpon dezakegun gauza bat bezala antzeman dutenez, ikasleen aldetik inplikazioa handia lortu dut.

Azkenik, eskerrak eman nahiko nieke eskolan dagoen irakaslego eta orientazio saileko langileei. Lanean lortuko ziren emaitzetan sinetsi zutelako eta erraztasunak jarri zituztelako esku-hartzea aurrera eramaterako momentuan. Horregatik, aipatu behar da, irakasleagoaren elkarlana eta esku-hartzearengan konfiantza ezinbestekoa izan dela proiektua aurrera eramateko. Gainera, eskerrak eman unibertsitateko tutoreari esku-hartzearen interbentzioaren diseinuan eta inplementazioan ezinbesteko gidaria izan delako.

Jarrai dezagun jazarpenari aurre egiten denok batera eta jazarpena ekiditen.

5. Bibliografia

- Barri, F. (2010). *SOS BULLYING: Prevenir el acoso y mejorar la convivencia*. Wolters Kluwer.
- Boal, A. (1980). *Teatro del oprimido 1: Teoría y práctica*. Nueva Imagen.
- Calsamiglia, A. eta Cubells, J. (2016). El Potencial del Teatro Foro como Herramienta de Investigación. *Athenea Digital*, 16(1), 189-209.
- Calvo, A., Haya, I. eta Ceballos, N. (2015). El Teatro Foro como estrategia pedagógica promotora de la justicia social. Una experiencia de formación inicial del profesorado en la Universidad de Cantabria. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 82(29.1), 89-107.
- Casas, J. A., Ortega-Ruiz, R. eta Rodríguez-Hidalgo, A. J. (2017). Redes sociales y riesgo de ciberacoso: más allá de la escuela. In A. J. Rodríguez-Hidalgo eta R. Ortega-Ruiz (Ed.), *Acoso escolar, ciberacoso y discriminación: Educar en la diversidad y convivencia* (58-68 orr.). Catarata.
- Enríquez, A. (2021). *El teatro foro como herramienta de prevención y sensibilización ante el acoso escolar hacia las disidencias sexuales y de género* [Master Amaierako Lana]. Facultad de Educación, Universidad de Zaragoza, España. ZAGUAN. <https://zaguan.unizar.es/record/109747/files/TAZ-TFM-2021-1386.pdf>
- Eusko Jaurlaritz (2015). *Eskola jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida*. Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.
- Garaigordobil, M. (2011). Prevalencia y consecuencias del cyberbullying: una revisión. *International Journal of Psychology and Psychological Therapy*, 11(2), 233-254.
- García, T. eta de Vicente, C. (2020). El teatro foro como herramienta didáctica para el cambio educativo. *Universidad Nacional de Educación a Distancia*, 23(1), 437-458.
- Granados, L. (2020). *Propuesta de intervención en habilidades sociales desde el teatro foro para menores infractores* [Gradu Amaierako Lana]. Facultad de Educación y

Trabajo Social, Universidad de Valladolid, España. UVaDOC.
<https://uvadoc.uva.es/bitstream/handle/10324/42572/TFG-G4167.pdf?sequence=1>

Gómez-Ortiz, O., Ortega-Ruiz, R. eta Rodríguez-Hidalgo, A. J. (2017). Detectar y prevenir el acoso escolar: escuela y familia trabajando juntas. In A. J. Rodríguez-Hidalgo eta R. Ortega-Ruiz (Ed.), *Acoso escolar, ciberacoso y discriminación: Educar en la diversidad y convivencia* (29-42 orr.). Catarata.

KiVa Program. (Data gabe). *KiVa Antibullying Program (Euskera): KiVa - Egin dezagun elkarrekin!*. KiVa. <https://espanaeusk.kivaprogram.net/what-is-kiva/>

LOMLOE. (2020). 3/2020 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. BOE zb. 340, 122868-122953 orr.
<https://www.boe.es/eli/es/lo/2020/12/29/3/dof/eus/pdf>

Miticanoy, W. G. eta Ramírez, V. (2017). Mejoramiento de la convivencia escolar en el grado sexto a partir del Teatro Foro como estrategia didáctica. In F. J. Murillo (Ed.), *Avances en Liderazgo y Mejora de la Educación: Actas del I Congreso Internacional de Liderazgo y Mejora de la Educación* (326-332 orr.). Red de Investigación sobre Liderazgo y Mejora de la Educación (RILME).
https://repositorio.uam.es/bitstream/handle/10486/679609/076_mejoramiento_miticanoy_CILME_2017.pdf?sequence=1&isAllowed=y

Muñoz, M. J. (2022). *Teatro: Una herramienta didáctica para la resolución de conflictos*. [Gradu Amaierako Lana, Universidad de los Andes]. Séneca.
<https://repositorio.uniandes.edu.co/bitstream/handle/1992/59363/Mari%20bfa%20Jose%20bf%20Mun%20bfoz%20Texto%20Final%20Tesis%20.pdf?sequence=3&isAllowed=y>

Olweus, D. (1993). *Bullying at school: What we know and what we can do*. Blackwell.

Orte, M. C. (2003). Los problemas de convivencia en las aulas: análisis del bullying. *Revista electrónica interuniversitaria de formación del profesorado*, 6(2), 1-7.

Porcel, S. (2020). *Adierazpen eta komunikazio trebetasunak: Antzerki foroa hezkuntza testuinguruetan errealitatea eraldatzeko tresna gisa*. [Gradu

- Amierako Lana, Universidad del Pais Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea]. ADDI.
https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/50718/GrAl_Porcel.pdf?sequence=2
- Romain, t. (2010). *Anti-bullying: descubrir el acoso escolar y combatirlo*. Oniro.
- Romera-Félix, E. M., García-Fernández, C. M. eta Ortega-Ruiz, R. (2017). Cimentar la convivencia desde la escuela infantil: afrontando la agresividad injustificada. In A. J. Rodríguez-Hidalgo eta R. Ortega-Ruiz (Ed.), *Acoso escolar, ciberacoso y discriminación: Educar en la diversidad y convivencia* (29-42 orr.). Catarata.
- Seoane, O. (2020). *Bullying-aren prebentzioa lehen hezkuntzan: hezkuntza emozionala eta balioen lanketa*. [Gradu Amaierako Lana. Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea]. ADDI.
https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/50201/GRAL_OlatzSeoaneMartin.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Serrante, S. (2007). *Bullying: acoso escolar. Guía para entender y prevenir el fenómeno de la violencia en las aulas*. Laberinto S. L.
- Vera Gonzalez, R. (2010). Violencia en las aulas: el Bullying o acoso escolar. *Revista Digital, Innovación y Experiencias Educativas*, 37(2), 7-9.
- Wanceulen, A. (2016). *Stop Bullying*. Wanceuelen, S.L.